

DROUGHTSINERGY, LEHORTEEN AURREAN HIRI- ERRESILIENTZIA INDARTZEKO EUROPAKO PROPOSAMENA

Posted on 11/03/2024 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Europear proiektuak](#), [Living Labs](#), [Naturan oinarritutako konponbideak](#)

NAIDERek Europako hainbat herrialdetako erakunde garrantzitsuekin harremanak sendotzen jarraitzen du, gure gizarteen erronkei konponbide berritzaileak garatuz eta ezarriz heltzeko. Partzuergoko kide izateko ohorea dugu DroughtSinergy proiektu europarraren proposamenaren atzean, zeina berriki aurkeztu baita Horizonte Europa programaren deialdira: "[Naturan oinarritutako konponbideak erakustea, klima aldakorrean baliabide hidrikoen kudeaketa iraunkorrerako, arreta berezia jarritz muturreko lehordeen inpaktua murrizteari](#)".

Irlandako [Atlantic Technological University](#)-k gidatutako DroughtSinergy proiektuak hogeita hamar partner inguru ditu, horien artean, Gasteizko [Ingurugiro Gaietarako Ikastegia](#) eta [Euskal Herriko Unibertsitatea](#). Europa osoan zehar banatutako eta arro hidrografiko eta tokiko eta eskualdeko komunitateen sare bati zuzendutako 10 living lab-etan zentratuta, DroughtSinergyk Naturan Oinarritutako Soluzio Berritzaileak (NBS) kontzeptualizatzea, kodiseinatzea, kogaratzeta eta koinplementatzea bilatzen du, tokian-tokian egokituak eta system thinking-ean oinarrituak, arrisku hidrometeorologikoen aurrean erresilientzia indartzeko, lehorreak bereziki.

Helize laukoitzeko eredu baten bidez, DroughtSynergyk aktiboki inplikatzeko dituen alderdi interesdunak, komunitateak eta herritarrak, klimaren eta uraren arloko Europako politikekin bat etorritik. Proiektuaren helburuen artean daude oztopoak gainditzea, gizarte-berrikuntza sustatzea eta Horizonte Europaren misioekin harmonizatzea.

